



AA/ig

E-IOH-24/21  
OH

**Diputatuen Kontseiluak, 2021eko abenduaren 15eko bileran, honako erabaki hau hartu zuen:**

"Europako Kontseiluaren 92/43/EE Direktibak, 1992ko maiatzaren 21ekoak, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora zaintzeari buruzkoak, habitat jakin batzuk zaindu beharra ezartzen du. Horretarako, neurriak hartzea behartzen du, haiek egoera onuragarri batean mantendu edo leheneratzeko.

Era berean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/60/EB Direktibak, 2000ko urriaren 23koak, uren politika arloan batasuneko jardura esparru bat ezartzen duenak, ekosistema urtarren egoera hobetzeko helburua definitzen du.

Bestalde, Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiak abian jarri du Oztopoak Iragazkortzeko Plan Gidaria, zeinak konpromiso irmoa baitakar gure ur ibilguen ibai-leheneratzearekin, ibai habitata berreskuratzea bultzatuz, hainbat elementu kenduta, arrain espezieen migrazio mugimenduetarako oztopo baitira.

Plan horretan jasotako jarduketan artean dago Oiartzun ibaia iragazkortzea, non aurreikusten den goialdeko tartean dauden bi presa txikiren gainean esku hartzea.

Horretarako, eta Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiak enkargatuta, GIRDER INGENIEROS SL enpresak proiektu hau idatzi du 2020ko abenduan: OIARTZUN IBAIAN (OIARTZUN) TXABOLA ETA AIENDOLA PRESA TXIKIAK ERAISTEKO PROIEKTUA. Aurrekontua 116.339,98 eurokoa da (BEZA barne), eta egikaritzeko epea 6 hilabetekoa da.

2021eko abuztuaren 26ko txosten teknikoaren arabera, Aiendola presa txikiaren funtzioa hau zen: presa txikia zeharkatzen zuen hornidura-hodi zaharra babestea; baina hodi hori ez da erabiltzen, eta, beraz, proiektuak oztopoa erabat eraistea proposatzen du. Txabola presa txikiaren kasuistika antzekoa da, baina hornidura-hodia martxan dago, eta horregatik, presa eraitsi ahal izateko, desbideratu egin behar da. Hau da, obrek bi presa txikiak kentzea eta eroanbide tarte berri bat eraikitzea aurreikusten dute.

Idatzitako proiektua ondo egokitzen zaio azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuena 233. artikuluan ezarritakoa.

Jarduerek Aiako Harria (KBE ES2120016) Kontserbazio Bereziko Eremuari eragiten diote, eta, beraz, proiektuari ingurumen ebaluazioa egin zitzaien. Ingurumen inpaktuaren txostena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2021eko urriaren 18an (199. zk.).

Idatzitako proiektuan oinarrituta, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Lurzoruaren eta Ondarearen Kudeaketako Zerbitzuak, afektatutako ondasunen eta eskubideen zerrenda egiaztatzeari eta eguneratzeari ekin dio. Zerrenda hori, lotutako informazio grafikoarekin batera, eta eraikuntza proiektua bera, jendaurrean ikusgai jartzeko izapidea hasteko oinarri izan dira.

Proiektu hori, hasiera batean, ontzat eman ondoren, egitea komeni zenez eta proiektuko obrak egiteko lur atxikipen batzuk egin behar zirela kontuan hartuz, proiektua onartzeko legezko tramiteak hastea erabaki zen, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako foru diputatuaren 2021eko irailaren 9ko Foru Aginduaren bidez. Hortaz, proiektua eta nahitaez hartu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda banakatu jendaurrean jarri ziren Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legeak agindutako moduan eta epeetan.

Foru agindu hori 2021eko irailaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (183 zk.) eta proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen titularrei jakinarazi zitzairen. Era berean, proiektua Oiartzungo Udalari eta Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi zitzairen adieraz zezaten ados zeuden ala ez, eta, ados ez bazeuden, egokitzen jotzen zituzten alegazio edo iradokizunak egin zitzaizkien.



Informazio publikoko eta entzunaldiko epe horretan, Oartzungo Udalak alegazio bat aurkeztu du, eta Lurzoruaren eta Ondarearen Kudeaketako Zerbitzuak eta Obra Hidraulikoetako Zerbitzuak bidezkotzat jo dute erantzun hau ematea:

### OIARTZUNGO UDALAREN alegazioa.

Alegazioan adierazten du bere jabetzakoak direla 02, 05 eta 06 finkak, hornidurarako eroanbidea berritzeko derrigorrez okupatu beharrekoak, Txabola izeneko presa txikia kentzearen ondorioz. Era berean, Udalak adierazten du Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku jarriko dituela, inolako kontraprestazio ekonomikorik gabe, obrak egiteko behar diren adierazitako finen lursailak.

Nolanahi ere, 05 partzelari dagokionez, Udalak jakinarazten du lursail horren gaineko eskubideak udalaren titulartasunetik eratorritakoak direla soilik.

Alde batetik, Udalak, alegazioak aurkezteko epean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku jartzen ditu 02, 05 eta 06 finkak, egin behar diren obrak egiteko, eta, bestetik, aitortzen du 05 finkaren gainean bere titulartasunetik eratorritako eskubideak soilik dituela. Hori dela eta, ondasun eta eskubideen zerrendatik kenduko da 05INT espedientea, eta amaitutzat joko dira aipatutako finkei dagozkien 02TIT, 05TIT eta 06TIT desjabetze-espedienteak.

Ondorioz, eta proiektuaren izaera kontuan hartuta, 03 finkari dagokion desjabetze-espedientea izapidetzen jarraituko da, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 108. artikulutik 112. artikulura bitartean xedatutakoaren arabera, aldi baterako okupazioei dagokienez.

Hori dela eta, Diputatuen Kontseiluak, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko foru diputatuak eta Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatuak batera proposatuta, eta eztabaidatu ondoren, honako hau,

### **ERABAKITZEN DU**

**Lehenengo.-** OIARTZUN IBAIAN (OIARTZUN) TXABOLA ETA AIENDOLA PRESA TXIKIAK ERAISTEKO PROIEKTUA onartzea, herri onurakotzat emanez.

**Bigarren.-** Hartu beharrekotzat jotzea proiektu horrek eragindako ondasunak eta eskubideak, erabaki honen eranskinean jasota daudenak; eta Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko foru diputatuari ahalmena ematea lursailen erabilgarritasuna lortzeko, Nahitaezko Desjabetze Legeak, 1954ko abenduaren 16koak, 108. Artikulutik 112. artikulura ezarritako prozeduraren arabera.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete interesdunek, zuzenean, Bilbon Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean. Horretarako, BI HILABETEKO epea dute, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita HILABETEKO EPEAN. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzeakoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke."

**Jakin dezazun eta ondorioetarako adierazten dizudana.**

Donostia, 2022ko urtarrilaren 11

IDAZKARI TEKNIKOA,

PA

Izp.: Alberto Arana-Rod



**OIARTZUNGO UDALA.-** (P2006800C) [oiartzun@oiartzun.eus](mailto:oiartzun@oiartzun.eus)



ERASKINA: **OIARTZUN IBAIAN TXABOLA ETA AIENDOLA PRESA TXIKIAK ERAISTEKO** Proiektuak erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda  
ANEXO: Relación de bienes y derechos afectados por el Proyecto de **DEMOLICION DE LOS AZUDES DE TXABOLA Y AIENDOLA EN EL RIO OIARTZUN**

**OIARTZUNKO UDALA**  
**TERMINO MUNICIPAL DE OIARTZUN**

**Lurzati zk./Parcela: 01 TIT**

**Jabea/Titular: URA UR AGENTZIA / URA AGENCIA VASCA DEL AGUA**

Desjabetzapena/Expropiación: **0,00 m2**

Zortasuna/Servidumbre: **0,00 m2**

Aldi baterako lur-hartzea/Ocupación temporal: **887,75 m2**

Mugak/Linderos:

Iparraldean/Norte: Oiartzungo udala / ayuntamiento de Oiartzun

Hegoaldean/Sur: finkaren gainerakoa / resto de finca

Ekialdean/Este: erreka / río

Mendebaldean/Oeste: erreka / río

Katastroko izaera/Naturaleza Catastral:

Eref./Ref.:

**Lurzati zk./Parcela: 02 TIT**

**Jabea/Titular: OIARTZUNGO UDALA / AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN**

Desjabetzapena/Expropiación: **0,00 m2**

Zortasuna/Servidumbre: **0,00 m2**

Aldi baterako lur-hartzea/Ocupación temporal: **37,23 m2**

Mugak/Linderos:

Iparraldean/Norte: finkaren gainerakoa / resto de finca

Hegoaldean/Sur: erreka / río

Ekialdean/Este: finkaren gainerakoa / resto de finca

Mendebaldean/Oeste: bidea / camino

Katastroko izaera/Naturaleza Catastral: Landalurra / Rústica

Poligonoa/Polígono:15

Lurzatia/Parcela:026

**Lurzati zk./Parcela: 03 TIT**

**Jabea/Titular: AZPIROZ LECUONA, INOCENCIO**

Desjabetzapena/Expropiación: **0,00 m2**

Zortasuna/Servidumbre: **0,00 m2**

Aldi baterako lur-hartzea/Ocupación temporal: **255,75 m2**

Mugak/Linderos:

Iparraldean/Norte: erreka / río

Hegoaldean/Sur: erreka / río

Ekialdean/Este: finkaren gainerakoa / resto de finca

Mendebaldean/Oeste: finkaren gainerakoa eta bidea / resto de finca y camino

Katastroko izaera/Naturaleza Catastral: Landalurra / Rústica

Poligonoa/Polígono:15

Lurzatia/Parcela:100